

# ZAINKETAK EMATEA ETA JASOTZEA

**EUSKADIKO 55 URTEKO ETA  
GEHIAGOKO PERTSONEN  
BIZI BALDINTZEI BURUZKO  
AZTERLANA 2020**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



# ZAINKETAK EMATEA ETA JASOTZEA

## EUSKADIKO 55 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONEN BIZI BALDINTZEI BURUZKO AZTERLANA 2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

**Argitaraldia:**

1.a, 2022ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Egilea:**

Matia Institutuak egina:

Cristina Buiza; Nerea Galdona eta Álvaro García. Elena del Barrio (Kordinazioa)

**Landa lana:**

Demométrica

**Diseinua eta Maketazioa :**

Komunikazio Zuzendaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

# Edukia

Aurkezpena	7
Helburuak	9
Txostenaren helburuak	10
Metodologia	11
Azterlan honetan erabilitako aldagaiak	12
Emaitzak	13
Laguntza behar duten pertsonak	13
Laguntza behar duten pertsonen profila	13
Eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako laguntza beharra	14
Eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako laguntza	17
Laguntza jasotzen duten pertsonak	19
Laguntza jasotzen duten pertsonen profila	19
Jasotako laguntza mota	20
Laguntza ematen duten pertsonak	26
COVID-19aren eragina jasotako laguntzan	30
Laguntza ematen duten pertsonak	32
Zainketak eskaintzen dituzten pertsonen profila	32
Seme-alaben zaintza eta/edo heziketa	34
Biloben zaintza eta/edo heziketa	35
Desgaitasuna duten edo gaixorik dauden senitartekoak, bizilagunak edo lagunak zaintzea	37
Covid-19aren krisiaren eragina eskaintako zaintzan	40
Funtsezko mezuak	43



# Aurkezpena

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkesta espezifiko bat egiteak aukera ematen dio Eusko Jaurlaritzari lurralde honetako adinekoen bizimoduari buruzko aurreko azterlanei jarraipena emateko. Aurreko azterlanak lagungarriak izan dira lurraldeko zahartze prozesuaren berezitasunetara egokitutako planak, proposamenak eta estrategiak lantzeko. Azterlan horietako lehena 1993an egin zen (Adinekoen Inkesta), 1994ko Gerontologia Plana egiteko. Bigarren azterlana 2010ean egin zen (EAEko adinekoei buruzko bizi baldintzei buruzko inkesta), eta dokumentu honen oinarri gisa erabili zen: «Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza plan baterako oinarriak», 2011koa. Horrelako azken azterketa 2014an egin zen, eta «Zahartze aktiboaren euskal estrategia 2015-2020» argitaratu zenean amaitu zen.

2020an egindako azterlana inkestaren hirugarren edizioa da, eta pertsona horien errealitatea ezagutzea ez ezik, etorkizuneko joerak eta premiak aztertzea ere ahalbidetzen du. Ezagutza hori lagungarria da Euskadin zahartze prozesuaren inguruko iraganeko politika publikoak ebaluatzeko eta etorkizunekoak diseinatzeko.

Azterlan honen emaitza gaikako txosten sorta bat da, zeinean zehatz-mehatz aztertzen diren Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egungo egoera eta bilakaera, hainbat arlotan (gizarte sarea, osasuna, zaintzak, parte-hartzea eta abar). Serieko ale honetan ***Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen eman eta jasotzen dituzten zainketen hartu-emana*** aztertzen da.





# Helburuak

Bizi baldintzen azterketaren (BBA+55 2020) helburua da gizarte politiken planifikatzaileei eta arduradunei informazio zehatza eta puntuala ematea Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen familia bizitzaren, banakako bizitzaren eta bizi diren ingurunearen baldintzei buruz. Inkestaren bidez, halaber, lurraldeko adinekoen errealitatea sistematizatu eta zabaldu nahi da, biztanleria talde horri dagozkion hainbat alderdiri helduz.

Azterlanaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Adineko pertsonen eguneroko bizitzaren parte diren alderdi ugariren argazki eguneratu bat eskaintzea (baldintza materialak, osasun egoera, heziketa maila, astialdia, parte hartzea, gizarte harremanak, ingurunea eta abar).
- Alderdi horiek 2010. urteaz geroztik izan dituzten joerak eta bilakaeraren konparazio azterketa bat egitea.
- Euskadiko lurraldeen artean eta hiriburuen artean gai horien inguruan dauden aldeak ezagutzea.
- Biztanle talde horren premiak identifikatzea.

Hasieran planifikatutako helburu horiei 2020an gertatutako krisi egoeraren ondorioz honako hau gehitu zitzaien:

- COVID-19aren krisiak Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen eguneroko bizitzan izan duen inpaktua ezagutzea.

## TXOSTEN HONEN HELBURUAK

Txosten honen helburu zehatza da Euskadin zaintza lanak egin eta jasotzen dituzten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egoera eta profilak aztertzea.

Honako hauek dira helburu espezifikoak:

- Eguneroko bizitzako jardueretarako (EBJetarako) laguntza behar duten pertsonen profila kuantifikatu eta aztertzea.
- Jasotako laguntzen profila eta tipologiak kuantifikatu eta aztertzea.
- Laguntza ematen duten pertsonen profila eta tipologiak kuantifikatu eta aztertzea.

# Metodologia

Hau da txostenaren oinarria: Euskadin familia etxebizitzetan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko bi generoetako biztanleei egindako inkesta baten azterketa kuantitatiboa.

Laginketa ausazkoa izan zen, eremu geografikoaren, adinaren eta sexuaren arabera estratifikatua. Euskadiko hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan emaitza adierazgarriak lortzeko, azken lagina 2.753 elkarrizketakoa izan zen, eta honela banatu ziren:

**3. taula. Laginaren azken banaketa, habitataren eta lurraldearen arabera, hiriburuetan gutxienez 400 elkarrizketa eslelituta**

GERUZA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
<b>5.000 baino gutxiago</b>	47	124	66	237
<b>5.001 eta 20.000 artean</b>	35	267	300	602
<b>20.001 eta 50.000 artean</b>	0	306	142	448
<b>50.000 baino gehiago</b>	0	199	67	266
<b>Hiriburuak</b>	400	400	400	1200
<b>Guztira</b>	<b>482</b>	<b>1296</b>	<b>975</b>	<b>2753</b>

Informazioa biltzeko teknika telefono bidezko elkarrizketa izan zen, CATI sistema informatikoaren bidez egituratutako galdetegi batean oinarrituta. Landa lana 2020ko uztailean, abuztuan eta irailean egin zen.

## AZTERLAN HONETAN ERABILITAKO ALDAGAIAK

Aldagai motei buruzko azalpena

### Laguntzaren premia

Laguntzaren premia edo mendekotasun egoera kalkulatzeko, eguneroko bizitzako jarduera (EBJ) jakin batzuk egiteko garaian dagoen laguntzaren premia neurtzen duen eskala bat erabiltzen da. Erabilitako eskala hamabi itenez osatuta dago. Item horien barruan, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak (EBOJ: jatea, garbitzea, janzteia eta abar) eta instrumentalak (EBJI: erosketak egitea, telefonoa erabiltzea, sendagaiak gogoratzea eta abar) bereizten dira. Pertsona batek jarduera hori egin ezin duenean edo egiteko laguntza behar duenean esaten da pertsona batek laguntza behar duela.

### Laguntza jasotzea

Jasotako laguntza neurtzeko galdera hau egin da: *Laguntzaren bat jasotzen al duzu?* Elkarrizketan parte hartu dutenek bi erantzun izan dituzte aukeran, *Bai* eta *Ez*.

### Laguntza mota

*Laguntzaren bat jasotzen al duzu?* galderari pertsonak *Bai* erantzuten dionean aztertzen da zer motatako laguntza jaso duen. Zaintza pertsonalerako, etxeko lanetarako, izapide eta gestioetarako eta konpainia izateko jasotzen duen laguntzaren maiztasunari buruz galdegiten zaio (egunero edo ia egunero jasotzen duen; astean behin edo birritan; gutxiagotan; inoiz ez).

### Laguntza ematen duten pertsonak

Jasotako laguntza informala edo formala izan daiteke. Laguntza informala esaten zaio ezkontideak, seme-alabek, senitartekoek, boluntarioek eta bizilagunek ematen dutenari; laguntza formala, berriz, ordaindutako lana da, gizarte zerbitzuetatik bideratutakoa edo zuzenean kontratatutako pertsona batek ematen duena.

# Emaitzak

## LAGUNTZA BEHAR DUTEN PERTSONAK

### Laguntza behar duten pertsonen profila

Inkestaren datuen arabera, Euskadiko 55 urteko edo gehiagoko pertsonen % 13,1ek laguntza behar du eguneroko bizitzako jarduera bat edo gehiago aurrera eramateko. 65 urteko eta gehiagoko biztanleen artean % 18,8 dira laguntza beharrean daudenak.

Sexuari erreparatuta, egoera horretan dauden emakumeen ehunekoa gizonenaren bikoitza da (emakumeen % 16,7k eta gizonen % 8,6k behar du laguntza). Adinari erreparatuta, 80 urtetik gorako pertsonak dira nagusi (% 39,6k behar du laguntza); ehuneko hori lau aldiz txikiagoa da aurreko adin tartean: 65-79 urtekoen artea % 8,8 dira laguntza behar dutenak. Beraz, adina eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza beharrarekin lotuta dagoen faktorea da.

Generoaren eta adinaren aldagaiak batera aztertuz gero ere, 80 urtetik gorako adin tartean dago laguntza behar duten pertsonen proportziorik handiena. Era berean, laguntza behar duten 80 urtetik gorako emakumeen ehunekoa gizonezkoenaren bikoitza da ia-ia. Adin handieneko emakumeen % 46,2k laguntza behar du eguneroko bizitzako jarduerak egiteko; egoera berean dauden gizonak, berriz, % 27,1 dira.

Etxe edo familia motari dagokionez, bakarrik bizi diren pertsonen % 19k laguntza behar du eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. Beste pertsona batzuekin bizi direnen artean, berriz, % 11 dira laguntza beharrean daudenak. Adin handieneko emakumeen profila da nagusi bakarrik bizi diren pertsonen artean, eta aipatutako emaitza datu horrekin lotuta dago.

Nabarmena da, halaber, laguntza beharraren eta ongizatearen arteko lotura. Ongizate subjektiboa kalkulatzeko 0 eta 100 bitarteko eskala erabili da. Hala, laguntza behar duten pertsonen artean ongizate

subjektiboaren batez besteko emaitza 58,2 da, eta laguntzarik behar ez dutenen artean, berriz, 70,0. Hortaz, laguntza behar duten pertsonen ongizate maila askoz txikiagoa dute laguntzarik behar ez dutenek baino.

### EBJetarako laguntzaren premia, sexuaren eta adinaren arabera

	Behar du	Ez du behar	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 13,1	% 86,9	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 18,8	% 81,2	0,000
<b>Sexua</b>			
Gizona	% 8,6	% 91,4	
Emakumea	% 16,7	% 83,3	0,000
<b>Adin tartekak</b>			
55 - 64 urte	% 3,9	% 96,1	
65 - 79 urte	% 8,8	% 91,2	
80 urte edo gehiago	% 39,6	% 60,4	0,000
<b>Sexua eta adin tartea</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 4,1	% 95,9	
65 - 79 urteko gizonak	% 6,3	% 93,7	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 27,1	% 72,9	
55 - 64 urteko emakumeak	% 3,8	% 96,2	
65 - 79 urteko emakumeak	% 11,0	% 89,0	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 46,2	% 53,8	0,000
<b>Etxe edo familia mota</b>			
Pertsona bakarrekoa	% 19,0	% 81,0	
Beste batzuekin	% 11,0	% 89,0	0,000
<b>Ongizatea 0tik 100era</b>			
Batez bestekoa	58,2	70,0	
Desbiderapen tipikoa	25,4	18,8	0,000

### Eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako laguntza beharra

Eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretarako (EBOJetarako) laguntzaren premia adin tarteka aztertuta ondorioztatuenez, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen % 5,1ek laguntza behar du mota horretako jardueretarako, hau da, jateko, komuna erabiltzeko, janzteko,

konketan garbitzeko, bainatu edo dutxatzeko edota oheratu eta jaikitzeko. Ehunekoak % 7,7ra igotzen da 65 urteko eta gehiagoko biztanleen kasuan, eta % 17,1era 80 urtetik gorako pertsonen erreparatuta. Generoen arteko aldea aurreko atalean aipatutakoaren ildokoa da: laguntza behar duten emakumeen ehunekoak (% 6,7) gizonena baino bi aldiz handiagoa da.

Generoa eta adina aldi berean aztertuta ikusten denez, emakume talde guztietan gizonezkoen artean baino handiagoa da laguntza behar duten biztanleen ehunekoak, eta zifren arteko alde hori oso nabarmena da 80 urtetik gorako kasuan.

#### EBOJetarako laguntzaren premia, sexuaren eta adinaren arabera

	EBOJetarako laguntzaren premia		
	Behar du	Ez du behar	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 5,1	% 94,9	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 7,7	% 92,3	0,000
<b>Sexua</b>			
Gizona	% 3,2	% 96,8	
Emakumea	% 6,7	% 93,3	0,000
<b>Adin tarteak</b>			
55 - 64 urte	% 1,1	% 98,9	
65 - 79 urte	% 3,1	% 96,9	
80 urte edo gehiago	% 17,1	% 82,9	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 1,0	% 99,0	
65 - 79 urteko gizonak	% 2,3	% 97,7	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 11,9	% 88,1	
55 - 64 urteko emakumeak	% 1,3	% 98,7	
65 - 79 urteko emakumeak	% 3,7	% 96,3	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 20,2	% 79,8	0,000

Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak banaka aztertzean ikus daitekeenez, kasu guztietan, adinak gora egin ahala goraka egiten du laguntza behar duen biztanleriaren ehunekoak ere. Batez ere bainatu edo dutxatzearekin eta janztearekin lotutako jardueretarako laguntza behar izaten dute pertsonen (% 3,6k eta % 3,3k, hurrenez hurren).

## EBOJetarako laguntzaren premia, laguntza motaren eta adinaren arabera

	Behar du	Ez du behar	
<b>Jantzeko laguntzaren premia</b>			
55 - 64 urte	% 0,8	% 99,0	
65 - 79 urte	% 1,8	% 98,1	
80 urte edo gehiago	% 11,5	% 88,5	0,000
<b>Etxean batetik bestera joateko laguntzaren premia</b>			
55 - 64 urte	% 0,6	% 99,2	
65 - 79 urte	% 1,0	% 98,9	
80 urte edo gehiago	% 7,5	% 92,5	0,000
<b>Necesidad de ayuda para bañarse o ducharse</b>			
55 - 64 urte	% 0,3	% 99,4	0,000
65 - 79 urte	% 1,7	% 98,2	
80 urte edo gehiago	% 13,8	% 86,2	0,000
<b>Norbere burua txukuntzeko laguntzaren premia</b>			
55 - 64 urte	% 0,2	% 99,5	
65 - 79 urte	% 1,1	% 98,8	
80 urte edo gehiago	% 7,8	% 92,2	0,000
<b>Jateko laguntzaren premia</b>			
55 - 64 urte	% 0,1	% 99,6	
65 - 79 urte	% 0,6	% 99,3	
80 urte edo gehiago	% 3,1	% 96,9	0,000
<b>Oheratzeko eta jaikitze laguntzaren premia</b>			
55 - 64 urte	% 0,6	% 99,3	
65 - 79 urte	% 1,0	% 99,0	
80 urte edo gehiago	% 6,5	% 93,5	0,000
<b>Komuna erabiltzeko laguntzaren premia</b>			
55 - 64 urte	% 0,5	% 99,4	
65 - 79 urte	% 0,6	% 99,3	
80 urte edo gehiago	% 5,6	% 94,4	0,000



## Eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako laguntza beharra

Eguneroko bizitzako jarduera instrumentalen (EBJlen) artean daude, besteak beste, janari beroa prestatzea, erosketak egitea, telefonoa erabiltzea, botikak hartzea, etxeko lanak egitea, dirua kudeatzea eta garraio publikoa erabiltzea. Inkestako datuen arabera, Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 12,5ek laguntza behar du jarduera horiek egiteko; 65 urtetik gorako biztanleen artean % 17,9 dira laguntza behar dutenak eta 80 urtetik gorakoen artean, berriz, % 38,7.

Kasu horretan ere, emakumeen artean ehunekoak handiagoak dira: % 16,1ek laguntza behar du eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletan; gizonen artean, berriz, % 7,9 dira laguntzaren premia dutenak.

### EBJletarako laguntzaren premia, sexuaren eta adinaren arabera

	EBJletarako laguntzaren premia		
	Behar du	Ez du behar	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 12,5	% 87,5	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 17,9	% 82,1	0,000
<b>Sexua</b>			
Gizona	% 7,9	% 92,1	
Emakumea	% 16,1	% 83,9	0,000
<b>Adin tartekak</b>			
55 - 64 urte	% 3,8	% 96,2	
65 - 79 urte	% 8,0	% 92,0	
80 urte edo gehiago	% 38,7	% 61,3	0,000
<b>Sexua eta adin tartea</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 3,9	% 96,1	
65 - 79 urteko gizonak	% 5,2	% 94,8	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 26,6	% 73,4	
55 - 64 urteko emakumeak	% 3,8	% 96,2	
65 - 79 urteko emakumeak	% 10,3	% 89,7	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 45,1	% 54,9	0,000

Jarduera mota bakoitza aztertuta, nabaria da adin tarte gazteenetan ia ez dagoela laguntzaren premiarik aipatutako jarduerak egiteko. 80 urtetik gorako pertsonen artean, berriz, laguntzaren premia dutenen ehunekoa aldatu egiten da jarduera motaren arabera. Adibidez, % 10 baino gutxiago dira telefonoa erabiltzeko edo botikak hartzeko laguntza behar dutenak; ehuneko handienei erreparatuta, % 24,4k laguntza behar du etxeko lanak egiteko eta % 21,1ek garraio publikoa erabiltzeko. Ehuneko handi horiek lotuta daude, seguruenik, jarduera horietan pertsonaren egoera fisikoak duen garrantziarekin.

### EBJletarako laguntzaren premia, jarduera motaren eta adinaren arabera

	Behar du	Ez du behar	Ez du inoiz egin	p
<b>Janari beroa prestatzeko laguntzaren premia</b>				
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 urte	% 1,1	% 98,8	% 0,1	
65 - 79 urte	% 1,5	% 97,7	% 0,8	
80 urte edo gehiago	% 13,8	% 84,0	% 2,2	0,000
<b>Erosketak egiteko laguntzaren premia</b>				
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 urte	% 1,1	% 98,8	% 0,1	
65 - 79 urte	% 1,5	% 97,7	% 0,8	
80 urte edo gehiago	% 13,8	% 84,0	% 2,2	0,000
<b>Telefonoa erabiltzeko laguntzaren premia</b>				
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 urte		% 99,9	% 0,1	
65 - 79 urte	% 0,5	% 99,3	% 0,2	
80 urte edo gehiago	% 5,8	% 94,2		0,000
<b>Botikak hartzeko laguntzaren premia</b>				
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 urte	% 0,5	% 98,0	% 1,5	
65 - 79 urte	% 0,8	% 98,4	% 0,8	
80 urte edo gehiago	% 9,8	% 90,2		0,000
<b>Etxeko lanak egiteko laguntzaren premia</b>				
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 años	% 2,5	% 97,4	% 0,1	
65 - 79 años	% 5,4	% 94,1	% 0,4	
80 o más años	% 24,4	% 74,0	% 1,6	0,000

Dirua kudeatzeko laguntzaren premia				
Edad en tramos				
55 - 64 urte	% 0,7	% 99,1	% 0,2	
65 - 79 urte	% 1,7	% 97,9	% 0,3	
80 urte edo gehiago	% 13,5	% 85,8	% 0,7	0,000
Necesidad de ayuda para utilizar transporte público				
Edad en tramos				
55 - 64 urte	% 1,1	% 98,6	% 0,3	
65 - 79 urte	% 3,3	% 96,2	% 0,4	
80 urte edo gehiago	% 21,1	% 73,1	% 5,8	0,000

## LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN PERTSONAK

### Laguntza jasotzen duten pertsonen profila

Inkestako datuen arabera, 55 urtetik gorako pertsonen % 17,5ek laguntza motaren bat jasotzen du, eta ehuneko % 23,9ra iristen da 65 urtetik gorako pertsonen kasuan; 80 urtetik gorako pertsonen artean ia % 40 dira laguntza jasotzen dutenak. Bai gizonen eta bai emakumeen artean, laguntza jasotzen duten pertsonen ehuneko bikoiztu egiten da adin tarte batetik bestera, adinak gora egin ahala. Ehunekorik handiena 80 urteko eta gehiagoko emakumeena da, % 41,5ek jasotzen baitu laguntzaren bat. Emakumeak eta adin handieneko pertsonak dira nagusi laguntza jasotzen dutenen artean. Eraitza hori bat dator aurrekoarekin, laguntza gehien behar dutenak adin handieneko emakumeak direla dioenarekin.

Etxe edo familia motari dagokionez, bakarrik bizi diren pertsonen % 27,7k laguntza jasotzen du; beste pertsona batzuekin bizi direnen kasuan, berriz, % 13,9k jasotzen du laguntzaren bat. Lehen aipatu dugunez, datu hori lotuta dago pertsona bakarreko etxeetan batez ere adin tarte handieneko emakumeak bizi izatearekin.

## Laguntza jasotzea

	Laguntzarik jasotzen al duzu?		
	Bai	Ez	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 17,5	% 82,5	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 23,9	% 76,1	0,000
<b>Sexua</b>			
Gizonak	% 14,8	% 85,2	
Emakumeak	% 19,6	% 80,4	0,001
<b>Adin tarteak</b>			
55 - 64 urte	% 7,3	% 92,7	
65 - 79 urte	% 16,5	% 83,5	
80 urte edo gehiago	% 39,3	% 60,7	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 7,8	% 92,2	
65 - 79 urteko gizonak	% 14,3	% 85,7	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 34,9	% 65,1	
55 - 64 urteko emakumeak	% 6,9	% 93,1	
65 - 79 urteko emakumeak	% 18,4	% 81,6	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 41,5	% 58,5	0,000

## Jasotako laguntza mota

Guztira, pertsonen % 17,5ek jasotzen du laguntzaren bat; horietatik % 20,7k zaintza pertsonalerako (garbitzeko, jaikitzeke, janzteko, erantzteko, jateko, etxean mugitzeko eta abarretarako), % 91,5ek etxeko lanetarako (etxeko eginbeharretarako, erosketak egiteko, konponketa lan txikietarako eta abarretarako), % 26,4k izapide eta gestioetarako (medikuarenera edo bankura joateko, adibidez) eta % 18,8k konpainia izateko.

Laguntzaren maiztasunari erreparatuta, % 15,7k egunero jasotzen du zaintza pertsonalerako laguntza, % 41,1 dira etxeko lanetan laguntza egunero jasotzen dutenak, % 3,2ri egunero laguntzen diote izapide eta gestioetan, eta % 15,5i egunero egiten diote konpainia.

**Laguntza jasotzen duten pertsonak: jasotako laguntza mota eta maiztasuna**

	Egunero edo ia egunero	Astean behin edo bitan	Hilean behin edo bitan	Gutxiagotan	Inoiz ez	ED/EDE	N
Zaintza pertsonala	15,7	3,6	0	1,5	78,6	,6	482
Etxeko laguntza	41,1	44,2	4,2	2,0	8,3	,3	482
Izapideak eta gestioak	13,2	5,0	3,2	4,9	73,0	,6	482
Konpainia egitea	14,5	2,6	,3	1,4	80,4	,9	482

55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, % 5,5 dira norberaren zaintzarako laguntza jasotzen dutenak, % 3,8k egunero. Datu hori % 5,4koa da 65 urteko edo gehiagoko pertsonen artean, eta % 12,2koa 80 urtetik gorako kasuan. Sexuaren eta adinaren arabera azterketak erakusten duenez, emakumeak eta adin handieneko pertsonak dira nagusi laguntza jasotzen dutenen artean.

## Zaintza pertsonalerako laguntzaren maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera

	Zaintza pertsonalerako laguntza (garbitzeko, jaikitzeke, janzteko, eranzteko, jateko, etxetik ibiltzeko eta abarretarako)						
	Egunero edo ia egunero	Astean behin edo bitan	Hilean behin edo bitan	Gutxiagotan	Inoiz ez	ED/EDE	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 3,8	% 0,8	% 0,1	% 0,8	% 89,8	% 4,7	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 5,4	% 1,1	% 0,1	% 0,7	% 88,4	% 4,3	0,000
<b>Sexua</b>							
Gizonak	% 2,5	% 0,4	% 0,2	% 0,9	% 91,4	% 4,6	
Emakumeak	% 4,8	% 1,1	% 0,1	% 0,8	% 88,5	% 4,7	
<b>Adin tartekak</b>							
55 - 64 urte	% 1,1	% 0,3	% 0,2	% 1,0	% 92,0	% 5,3	
65 - 79 urte	% 2,2	% 0,7	% 0,1	% 0,8	% 92,7	% 3,5	
80 urte edo gehiago	% 12,2	% 1,8		% 0,5	% 79,5	% 6,0	0,000
<b>Sexua eta adin tartekak</b>							
55 - 64 urteko gizonak	% 1,0	% 0,4	% 0,2	% 1,0	% 92,0	% 5,4	
65 - 79 urteko gizonak	% 1,3	% 0,4	% 0,2	% 1,1	% 92,9	% 4,0	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 9,8				% 86,0	% 4,1	
55 - 64 urteko emakumeak	% 1,3	% 0,2	% 0,2	% 1,1	% 92,0	% 5,3	
65 - 79 urteko emakumeak	% 3,1	% 1,0		% 0,5	% 92,4	% 3,1	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 13,4	% 2,8		% 0,8	% 75,9	% 7,0	0,000

55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 23,2k jasotzen du laguntza etxeko lanetarako, % 9,7k egunero. Zifra hori % 12,5koa da 65 urtetik gorakoan artean eta % 22,7koa 80 urtetik gorakoan kasuan. Laguntza mota hori jasotzen duten pertsonen profila adin handieneko emakumeena da, zaintza pertsonalerako laguntza jasotzen dutenen kasuan bezala.

## Etxeko lanetarako laguntzaren maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera

	Etxeko lanak egiteko laguntza jasotzen du (etxeko eginbeharretarako, erosketak egiteko, konponketa lan txikietarako eta abarretarako)						
	Egunero edo ia egunero	Astean behin edo bitan	Hilean behin edo bitan	Gutxiagotan	Inoiz ez	ED/EDE	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 9,7	% 10,9	% 1,1	% 1,4	% 72,3	% 4,5	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 12,5	% 14,3	% 1,6	% 1,5	% 66,2	% 4,0	0,000
<b>Sexo</b>							
Gizonak	% 10,0	% 7,5	% 0,6	% 0,3	% 77,1	% 4,5	
Emakumeak	% 9,5	% 13,6	% 1,6	% 2,4	% 68,4	% 4,5	0,000
<b>Edad en tramos</b>							
55 - 64 urte	% 5,3	% 5,4	% 0,4	% 1,4	% 82,1	% 5,3	
65 - 79 urte	% 7,5	% 11,7	% 1,3	% 1,2	% 75,1	% 3,1	
80 urte edo gehiago	% 22,7	% 19,6	% 2,2	% 2,0	% 47,6	% 5,8	0,000
<b>Sexo y edad en tramos</b>							
55 - 64 urteko gizonak	% 6,8	% 3,9	% 0,4	% 0,2	% 83,3	% 5,4	
65 - 79 urteko gizonak	% 8,0	% 9,3	% 0,6	% 0,4	% 78,1	% 3,6	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 23,8	% 12,4	% 1,6	% 0,5	% 57,0	% 4,7	
55 - 64 urteko emakumeak	% 4,0	% 6,9	% 0,5	% 2,5	% 80,7	% 5,3	
65 - 79 urteko emakumeak	% 7,1	% 13,8	% 1,9	% 1,9	% 72,5	% 2,8	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 22,2	% 23,6	% 2,5	% 2,8	% 42,7	% 6,2	0,000

Lagin osoaren % 7,5ek jasotzen du izapideak eta gestioak egiteko laguntza. Laguntza mota hori egunero jasotzen dutenak gutxiago dira, % 3,2, hain zuzen, eta 80 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, berriz, % 10,7. Horretan ere, emakumeek gizonak baino proportzio handiagoan jasotzen dute laguntza, batez ere adinean oso aurrera doazenek.

## Izapideak eta gestioak egiteko laguntzaren maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera

	Izapide eta gestioak egiteko laguntza jasotzen du (medikuarenera joateko, bankura eta abar)						
	Egunero edo ia egunero	Astean behin edo bitan	Hiltean behin edo bitan	Gutxiagotan	Inoiz ez	ED/EDE	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 3,2	% 1,3	% 1,1	% 2,0	% 87,7	% 4,7	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 4,7	% 1,9	% 1,7	% 2,6	% 84,8	% 4,4	0,000
<b>Sexua</b>							
Gizonak	% 2,3	% 0,7	% 0,6	% 1,6	% 90,1	% 4,6	
Emakumeak	% 4,0	% 1,7	% 1,4	% 2,3	% 85,8	% 4,8	0,003
<b>Adin tartekak</b>							
55 - 64 urte	% 0,8	% 0,3	% 0,1	% 1,0	% 92,4	% 5,3	
65 - 79 urte	% 1,7	% 1,0	% 0,9	% 1,3	% 91,5	% 3,6	
80 urte edo gehiago	% 10,7	% 4,0	% 3,5	% 5,3	% 70,5	% 6,0	0,000
<b>Sexua eta adin tartekak</b>							
55 - 64 urteko gizonak	% 1,2	% 0,2		% 1,0	% 92,2	% 5,4	
65 - 79 urteko gizonak	% 1,1	% 0,8	% 0,4	% 1,1	% 92,6	% 4,0	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 8,2	% 2,6	% 3,1	% 4,6	% 77,3	% 4,1	
55 - 64 urteko emakumeak	% 0,5	% 0,4	% 0,2	% 1,1	% 92,5	% 5,3	
65 - 79 urteko emakumeak	% 2,3	% 1,1	% 1,1	% 1,5	% 90,8	% 3,2	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 12,3	% 4,8	% 3,6	% 5,6	% 66,7	% 7,0	0,000

55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 4,4k konpainia egitea xede duen laguntza jasotzen du; 80 urtetik gorakoek artean % 15,5i norbait etortzen zaio konpainia egitera. Kasu honetan ere, adin handieneko emakumeen profila nabarmentzen da.



## Konpainia egiteko laguntzaren maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera

	Laguntza jasotzen du konpainia egin diezaioten						
	Egunero edo ia egunero	Astean behin edo bitan	Hilean behin edo bitan	Gutxiagotan	Inoiz ez	ED/EDE	p
<b>+ 55 gutzira</b>	% 3,3	% 0,5	% 0,0	% 0,5	% 90,8	% 4,7	0,009
<b>+ 65 gutzira</b>	% 5,1	% 0,9	% 0,1	% 0,5	% 89,1	% 4,3	0,000
<b>Sexua</b>							
Gizonak	% 2,0	% 0,2		% 0,6	% 92,4	% 4,8	
Emakumeak	% 4,3	% 0,7	% 0,1	% 0,5	% 89,7	% 4,7	
<b>Adin tartekak</b>							
55 - 64 urte	% 0,4			% 0,7	% 93,5	% 5,4	
65 - 79 urte	% 1,4	% 0,4		% 0,4	% 94,2	% 3,5	
80 urte edo gehiago	% 12,9	% 1,8	% 0,2	% 0,5	% 78,5	% 6,0	0,000
<b>Sexua eta adin tartekak</b>							
55 - 64 urteko gizonak	% 0,4			% 0,6	% 93,4	% 5,6	
65 - 79 urteko gizonak	% 1,0	% 0,4		% 0,6	% 94,1	% 4,0	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 9,3	% 0,5		% 0,5	% 85,0	% 4,7	
55 - 64 urteko emakumeak	% 0,2			% 0,7	% 93,8	% 5,3	
65 - 79 urteko emakumeak	% 1,9	% 0,3		% 0,3	% 94,4	% 3,1	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 14,8	% 2,5	% 0,3	% 0,6	% 75,1	% 6,7	0,000

Hala, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 22,8k laguntza motaren bat jasotzen du astean behin (adineko pertsonen % 29,2k). Profil horretan adinik handieneko emakumeak dira nagusi, horien artean % 51,8k jasotzen baitu laguntzaren bat. Hau da, 80 urteko eta gehiagoko emakumeen erdiak baino gehiagok laguntza motaren bat jasotzen du astero.

## Laguntza jasotzeko maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera

	Laguntza, guztira			
	Astero	Gutxiagotan	Inoiz ez	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 22,8	% 3,7	% 73,5	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 29,2	% 4,7	% 66,0	0,000
<b>Sexua</b>				
Gizonak	% 18,9	% 1,6	% 79,5	
Emakumeak	% 25,9	% 5,4	% 68,7	0,000
<b>Adin tartekak</b>				
55 - 64 urte	% 12,4	% 2,1	% 85,5	
65 - 79 urte	% 20,8	% 3,5	% 75,7	
80 urte edo gehiago	% 47,1	% 7,3	% 45,6	0,000
<b>Sexua eta adin tartekak</b>				
55 - 64 urteko gizonak	% 12,3	% 0,6	% 87,1	
65 - 79 urteko gizonak	% 18,2	% 2,0	% 79,8	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 38,4	% 3,8	% 57,8	
55 - 64 urteko emakumeak	% 12,6	% 3,4	% 83,9	
65 - 79 urteko emakumeak	% 23,1	% 4,8	% 72,1	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 51,8	% 9,5	% 38,7	0,000

## Laguntza ematen duten pertsonak

Pertsonak batez ere laguntza informala jasotzen dute, hau da, senitartekoek, bizilagunek edo boluntarioek eskainitakoa. Hala, laguntza jasotzen duten pertsonen % 65,5ek aipatutako inguruko pertsona horien laguntza izaten du. Bestalde, % 10,5ek adierazi du laguntza informalaz gain formala ere jasotzen duela (gizarte zerbitzuen edo era pribatuan kontratatutako pertsona baten eskutik). % 5,5ek laguntza formala bakarrik jasotzen du, gizarte zerbitzuek bideratutakoa edo modu pribatuan kontratatutakoa.

Adinak gora egin ahala, laguntza formalak eta bien arteko uztarketak ere goraka egiten dute, eta informal hutsa den laguntzak behera egiten du. 55-64 urteko adin tarteko pertsonen % 5,3k laguntza informala eta formala jasotzen du, eta 80 urtetik gorakoen artean zifra hori % 23koa da. Laguntza formala jasotzen dutenak % 3,8 dira adinik txikieneko taldean

eta % 6,7 80 urtetik gorakoen artean. Generoari dagokionez, joera hori nabarmenagoa da emakumeen artean. Hala, bi eratako laguntza jasotzen dute 55 eta 64 urte arteko emakumeen % 5,8k eta 80 urtetik gorakoen % 24,9k. Laguntza informalak behera egiten du adinak gora egin ahala: gazteenen artean % 65,7k jasotzen dute eta adin handiagokoen artean % 58,5ek. Laguntza formalari erreparatuta, berriz, 55 eta 64 urte arteko emakumeen % 4,2k jasotzen du, eta 80 urtetik gorakoen artean % 7k.

Astero laguntza jasotzen duten pertsonen % 78,3k laguntza informala jasotzen du. Laguntza astero jasotzen duten pertsonen erdiak (% 45,5ek, hain zuzen) laguntza horixe bakarrik jasotzen du. Pertsonen % 19k laguntza informala bakarrik jasotzen du.

Bakarrik bizi diren pertsonen artean laguntza informalaren ehunekoak nabarmen egiten du behera beste pertsona batzuekin batera bizi direnekin alderatuta, baina hala ere gehiengoak jasotzen duen laguntza mota da.

#### Laguntza jasotzen duten pertsonak, jasotako laguntza motaren arabera

	Laguntza mota				
	Biak	Infor- mala	Formala	ED/EDE	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 10,5	% 65,5	% 5,5	% 18,5	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 13,8	% 63,9	% 6,5	% 15,8	0,000
<b>Sexua</b>					
Gizonak	% 8,4	% 70,0	% 5,1	% 16,5	
Emakumeak	% 12,3	% 61,9	% 5,8	% 20,1	0,000
<b>Adin tarteak</b>					
55 - 64 urte	% 5,3	% 68,0	% 3,8	% 22,8	
65 - 79 urte	% 9,3	% 65,0	% 6,3	% 19,4	
80 urte edo gehiago	% 23,0	% 61,9	% 6,7	% 8,4	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>					
55 - 64 urteko gizonak	% 5,0	% 70,2	% 3,7	% 21,1	
65 - 79 urteko gizonak	% 7,6	% 70,4	% 6,1	% 15,8	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 19,3	% 68,2	% 6,3	% 6,3	
55 - 64 urteko emakumeak	% 5,8	% 65,7	% 4,2	% 24,3	
65 - 79 urteko emakumeak	% 10,6	% 60,3	% 6,6	% 22,4	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 24,9	% 58,5	% 7,0	% 9,5	0,000

Etxe edo familia mota					
Pertsona bakarrekoa	% 15,0	% 49,4	% 10,1	% 25,5	
Pertsona gehiagorekin	% 8,9	% 71,1	% 3,9	% 16,0	0,000

Laguntza eskuratzeko moduaren arabera ere sailkatu dira laguntza motak: familiak emandakoa, komunitateak emandakoa, publikoa edo pribatua. Pertsonak batez ere familiaren aldetik jasotzen dute laguntza. Mota horretako laguntza dute 65 eta 79 urte arteko emakumeen % 70ek eta 80 urteko eta gehiagoko gizonen % 86,5ek. Emaizta horiek bat datoz lehenago laguntza informalarri buruz aipatutakoekin, nahiz eta kasu honetan ez den kontuan hartu bizilagunen eta boluntarioen laguntza. Bi generoetan adinarekin batera egiten du gora familiaren laguntzak, baina gizonen ehunekoa handiagoa da beti. Horren arrazoietakoa bat izan liteke gizonen kasuan bikotekidearekin batera bizitzea dela ohiko etxe edo familia mota, eta askotan emaztea izaten dela laguntza hori ematen duena.

Familiaren laguntzaren ondoren, komunitateak ematen duena da ohikoena, hau da, bizilagunek eta boluntarioek eskaintzen dutena: pertsonen % 18,5ek jasotzen du. Nolanahi ere, laguntza mota horrek behera egiten du adinak gora egiten duen heinean, bai gizonen eta bai emakumeen artean: 55 eta 64 urte arteko pertsonen % 22,8k jasotzen du komunitatearen laguntza, eta 80 urtetik gorakoan artean, berriz, % 8,4k. Laguntza mota hori jasotzen dutenen artean emakumeak dira nagusi, adin tarte guztietan gainditzen dute gizonen ehunekoa. Alargun egoeran eta bakarrik bizitzen daudenen artean emakumeak gehiago izatea izan daiteke arrazoietakoa bat.

Laguntza publiko edo pribatuaren mailari dagokionez, adin tarte guztietan, generoa edozein dela, pertsona gehiagok jasotzen du laguntza pribatua publiko baina, baina aldea ez da handia. 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean % 5,5ek laguntza pribatua jasotzen du eta % 4,5ek publikoa.

## Laguntza jasotzen duten pertsonak, jasotako laguntza motaren arabera

	Laguntza mota							
	Senideak <sup>a</sup>	Publikoa <sup>b</sup>	Pribatua <sup>c</sup>	Komunitarioa <sup>d</sup>	p <sup>a</sup>	p <sup>b</sup>	p <sup>c</sup>	p <sup>d</sup>
<b>+ 55 guztira</b>	% 75,3	% 4,5	% 5,5	% 18,5	0,000	0,000	0,000	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 76,7	% 5 <sup>b</sup>	% 6,5	% 15,8	0,000	0,000	0,000	0,000
<b>Sexua</b>								
Gizonak	% 77,9	% 4,6	% 5,1	% 16,5				
Emakumeak	% 73,1	% 4,5	% 5,8	% 20,1	0,010		0,000	0,000
<b>Adin tartea</b>								
55 - 64 urte	% 73,0	% 3,8	% 3,8	% 22,8				
65 - 79 urte	% 73,7	% 5,3	% 6,3	% 19,4				
80 urte edo gehiago	% 82,9	% 4,5	% 6,7	% 8,4	0,000	0,000	0,000	0,000
<b>Sexua eta adin tartea</b>								
55 - 64 urteko gizonak	% 74,8	% 3,9	% 3,7	% 21,1				
65 - 79 urteko gizonak	% 78,1	% 5,2	% 6,1	% 15,8				
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 86,5	% 5,7	% 6,3	% 6,3				
55 - 64 urteko emakumeak	% 71,3	% 3,6	% 4,2	% 24,3				
65 - 79 urteko emakumeak	% 70,0	% 5,5	% 6,6	% 22,4				
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 81,2	% 3,9	% 7,0	% 9,5	0,000	0,000	0,000	0,000

Familiaren laguntza jasotzen duten pertsonen kasuan, % 43,8ri bikotekide edo ezkontideak laguntzen dio, % 34,2ri bizikide ez duen seme-alabaren batek, eta % 20,3ri etxe berean bizi den seme-alabaren batek. Emaztearengandik edo bikotekidearengandik laguntza jasotzen duten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa da, eta aldea are nabarmenagoa da adinak aurrera egin ahala. 80 urtetik gorako gizonen % 41,7k bikotekidearen edo emaztearen laguntza du; adin bereko emakumeen kasuan, aldiz, % 12,6 dira senarraren aldetik laguntza

jasotzen dutenak. Lehenago aipatu dugunez, arrazoi nagusietako bat emakumeen bizi-itxaropen handiagoarekin lotuta dago, alargun diren eta bakarrik bizi diren emakume gehiago baitago. Hau da, adin handieneko emakume askok, laguntza behar duenean, ez du lagun diezaiokeen bikotekiderik; gizon askok bai, ordea. 80 urtetik gorako emakumeek batez ere seme-alaben aldetik jasotzen dute laguntza, gehien bat beraiekin bizi ez direnengandik.

**Familiaren laguntza jasotzen duten pertsonak, laguntzailearekiko ahaidetasun harremanaren arabera**

	Laguntza ematen dioten hiru pertsona <sup>m</sup>					
	Ezkontidea/Bizkide <sup>a</sup>	Bizikide duen seme-alaba <sup>b</sup>	Bizikide ez duen seme-alaba <sup>c</sup>	p <sup>a</sup>	p <sup>b</sup>	p <sup>c</sup>
<b>+ 55 guztira</b>	% 43,8	% 20,3	% 34,2	0,000	0,000	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 38,3	% 18,4	% 43,0	0,000	0,002	0,000
<b>Sexua</b>						
Gizonak	% 57,6	% 20,1	% 31,1			
Emakumeak	% 32,7	% 20,3	% 36,7	0,000		0,002
<b>Adin tartekak</b>						
55 - 64 urte	% 52,6	% 23,3	% 20,3			
65 - 79 urte	% 45,7	% 17,0	% 36,7			
80 urte edo gehiago	% 22,7	% 21,3	% 56,0	0,000	0,001	0,000
<b>Sexua eta adin tartekak</b>						
55 - 64 urteko gizonak	% 59,9	% 24,6	% 18,8			
65 - 79 urteko gizonak	% 61,1	% 17,0	% 33,8			
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 41,7	% 16,6	% 57,3			
55 - 64 urteko emakumeak	% 45,9	% 22,0	% 21,6			
65 - 79 urteko emakumeak	% 32,6	% 16,9	% 39,3			
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 12,6	% 23,8	% 55,5	0,000	0,002	0,000

## Covid-19aren eragina jasotako laguntzan

Lagina osatu duten pertsonen % 6,2k adierazi zuten, gainera, COVID-19aren krisiarekin lotuta, laguntzaren maiztasuna aldatu egin zela; % 2,9k esan zuten aurreko urtean baino maizago jaso zuela laguntza, eta % 3,3k gutxiagotan jaso zuela. Aldaketen berri eman zutenen artean adin handieneko emakumeak ziren nagusi. Adin tarte horretako emakumeen % 16,0ren ustez, krisiak laguntzen maiztasuna aldatzea ekarri zuten; % 9,2ren kasuan maiztasunak gora egin zuten eta % 6,7rentzat behera.

**Laguntza jasotzen duten pertsonak, COVID-19aren krisiaren ondorioz laguntzen maiztasunak izan duen aldaketaren arabera**

	Zure kasuan, COVID-19aren ondorioz gaur egun laguntzak jasotzeko maiztasuna aldatu egin dela uste al duzu? Alderatu iazko ekaineko egoerarekin.				
	Bai, gora egin du	Ez, ez da aldatu	Bai, behera egin du	ED/EDE	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 2,9	% 92,8	% 3,3	% 1,0	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 4,0	% 91,3	% 3,8	% 0,9	0,000
<b>Sexua</b>					
Gizonak	% 1,5	% 96,3	% 1,7	% 0,5	
Emakumeak	% 3,9	% 90,1	% 4,6	% 1,4	0,000
<b>Adin tarteak</b>					
55 - 64 urte	% 1,0	% 95,3	% 2,4	% 1,2	
65 - 79 urte	% 2,2	% 94,1	% 3,1	% 0,5	
80 urte edo gehiago	% 7,8	% 85,3	% 5,3	% 1,6	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>					
55 - 64 urteko gizonak	% 0,4	% 96,7	% 1,9	% 1,0	
65 - 79 urteko gizonak	% 1,5	% 97,3	% 1,1		
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 4,7	% 92,2	% 2,6	% 0,5	
55 - 64 urteko emakumeak	% 1,8	% 93,6	% 3,1	% 1,5	
65 - 79 urteko emakumeak	% 2,7	% 91,6	% 4,8	% 0,8	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 9,2	% 81,8	% 6,7	% 2,2	0,000

## LAGUNTZA EMATEN DUTEN PERTSONAK

### Zainketak eskaintzen dituzten pertsonen profila

Inkestaren emaitzen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ia % 30ek zainketak eskaintzen dizkie beste pertsona batzuei astean behin gutxienez, seme-alabei, bilobei edo senitartekoei, desgaitasuna duten edo gaixorik dauden bizilagunei edo lagunei. Zifra hori % 21,6ra jaisten da 65 urtetik gorako pertsonen artean eta % 10,5era 80 urtetik gorakoen artean. 55 eta 64 urte arteko pertsonen % 40,4k astero eskaintzen ditu zaintzak. Adin tarte guztietan emakumeak dira nagusi zainketen eskaintzan, baina 80 urtetik gorako pertsonen artean genero arrakala txikitu egiten da, eta gizonen eta emakumeen ehunekoak parekoak dira. Kasu horretan, zainketa lana bikotekidea zaintzea izan ohi da.

#### Zainketak eskaintzen dituzten pertsonak

	Zaintza, guztira			
	Astean behin, gutxienez	Gutxiagotan edo inoiz ez	ED/EDE	P
<b>+ 55 guztira</b>	% 28,9	% 66,0	% 5,1	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 21,6	% 72,8	% 5,6	0,000
<b>Sexua</b>				
Gizonak	% 26,0	% 69,2	% 4,8	
Emakumeak	% 31,2	% 63,4	% 5,4	0,006
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 urte	% 40,4	% 55,2	% 4,4	
65 - 79 urte	% 27,0	% 68,4	% 4,6	
80 urte edo gehiago	% 10,5	% 81,9	% 7,6	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>				
55 - 64 urteko gizonak	% 37,0	% 58,5	% 4,5	
65 - 79 urteko gizonak	% 21,2	% 73,9	% 5,0	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 9,9	% 84,9	% 5,2	
55 - 64 urteko emakumeak	% 43,6	% 52,0	% 4,4	
65 - 79 urteko emakumeak	% 31,9	% 63,7	% 4,4	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 10,9	% 80,4	% 8,7	0,000



Batez beste 1,65 pertsonak eskaintzen ditu zainketak, eta ez dago alderik generoen artean baina bai adinari erreparatuta. 65 eta 79 urte arteko pertsonak dute batez bestekorik handiena (1,80), batez ere belaunaldi horretako emakumeek (1,86). Adin tarte horri «sandwich» belaunaldia esaten diote, zainketa lan asko egiten baitu, gurasoak zain ditzake eta, aldi berean, seme-alabak edo bilobak ere bai.

#### Zainketak eskaintzen dituzten pertsonak, zaintza horien hartzailen batez bestekoaren arabera

	Pertsonak eskaintzen dituen zainketen hartzailen batez bestekoa			
	Kop.	Batez bestekoa	Desbiderapen tipikoa	p
<b>+ 55 guztira</b>	813	1,65	1,296	
<b>+ 65 guztira</b>	363	1,72	1,370	
<b>Sexua</b>				
Gizonak	333	1,62	1,284	0.578
Emakumeak	480	1,67	1,305	
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 urte	450	1,58	1,230	
65 - 79 urte	315	1,80	1,434	0.006
80 urte edo gehiago	49	1,24	0,693	
<b>Sexua eta adin tarteak</b>				
55 - 64 urteko gizonak	204	1,61	1,480	
65 - 79 urteko gizonak	110	1,68	0,919	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	19	1,3	0,7	0.037
55 - 64 urteko emakumeak	246	1,56	0,978	
65 - 79 urteko emakumeak	205	1,86	1,644	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	29	1,23	0,729	

## Seme-alaben zaintza eta/edo heziketa

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 7,1ek gutxienez astean behin zaintzen ditu seme-alabak, dibertsitate funtzionala dutenak kontuan hartu gabe. 65 urteko edo gehiagoko pertsonen artean % 2,4ra jaisten da zifra hori. Adin tarterik gazteenek proportzio handiagoan egiten dituzten zainketa lanak, eta 55 eta 64 urte artekoen kasuan % 14,8 dira zaintza eskaintzen dutenak. Izan ere, belaunaldi horietako pertsonak seme-alabak emantzipatu gabe dituzte oraindik.

### Seme-alabak zaintzen dituzten pertsonak

	Emandako laguntzen maiztasuna: seme-alaben zaintza		
	Astean behin, gutxienez	Gutxiagotan edo inoiz ez	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 7,1	% 92,9	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 2,4	% 97,6	0,000
<b>Sexua</b>			
Gizonak	% 7,4	% 92,6	
Emakumeak	% 6,9	% 93,1	
<b>Adin tarteak</b>			
55 - 64 urte	% 14,8	% 85,2	
65 - 79 urte	% 2,8	% 97,2	
80 urte edo gehiago	% 1,6	% 98,4	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 16,4	% 83,6	
65 - 79 urteko gizonak	% 1,7	% 98,3	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 0,0	% 100,0	
55 - 64 urteko emakumeak	% 13,3	% 86,7	
65 - 79 urteko emakumeak	% 3,8	% 96,2	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 2,5	% 97,5	0,000

Zainketen intentsitatean ere nabaria da hori, aipatutako adin tarte horretan astean batez beste 17,89 orduz eskaintzen baitituzte zaintzak, eta 80 urtekoen artean, berriz, 8,15 orduz. Badirudi gizonak, gazteenek behintzat, ordu gehiago ematen dituztela zainketa lanetan.

**Seme-alabak zaintzen dituzten pertsonak, asteko batez besteko orduen arabera**

	Seme-alabak zaintzen astean ematen dituen orduak			
	Kop.	Batez bestekoa	Desbiderapen tipikoa	p
<b>+ 55 guztira</b>	131	16,66	24,160	
<b>+ 65 guztira</b>	31	12,66	19,801	
<b>Sexua</b>				
Gizonak	59	18,80	24,544	0.365
Emakumeak	72	14,93	23,883	
<b>Adin tartekak</b>				
55 - 64 urte	100	17,89	25,313	
65 - 79 urte	23	14,21	22,177	0.486
80 urte edo gehiago	8	8,15	10,074	
<b>Sexua eta adin tartekak</b>				
55 - 64 urteko gizonak	52	19,29	24,965	
65 - 79 urteko gizonak	6	14,76	22,244	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	0			0.773
55 - 64 urteko emakumeak	48	16,36	25,861	
65 - 79 urteko emakumeak	16	14,00	22,859	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	8	8,15	10,074	

**Biloben zaintza eta/edo heziketa**

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 13,2 astero arduratzen da bilobak zaintzeaz. Kontuan hartu behar da bilobarik ez duten pertsonak ere zenbatu direla, eta hori da zaintzaile ez diren pertsonen kopurua handia izatearen arrazoietakoa bat.

Zifrek erakusten dutenez, emakumeak eta 65 eta 79 urte arteko pertsonen multzoa dira profil nagusia. Hala, bilobak zaintzen dituzten adin horretako emakumeak % 23,4 dira.

## Bilobak zaintzen dituzten pertsonak

	Emandako laguntzen maiztasuna: biloben zaintza		
	Asteaz behin, gutxienez	Gutxiagotan edo inoiz ez	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 13,2	% 86,8	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 14,9	% 85,1	0,001
<b>Sexua</b>			
Gizonak	% 9,8	% 90,2	
Emakumeak	% 15,9	% 84,1	0,000
<b>Adin tartekak</b>			
55 - 64 urte	% 10,4	% 89,6	
65 - 79 urte	% 19,6	% 80,4	
80 urte edo gehiago	% 5,2	% 94,8	0,000
<b>Sexua eta adin tartekak</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 6,7	% 93,3	
65 - 79 urteko gizonak	% 15,1	% 84,9	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 3,9	% 96,1	
55 - 64 urteko emakumeak	% 13,7	% 86,3	
65 - 79 urteko emakumeak	% 23,4	% 76,6	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 5,9	% 94,1	0,000

Asteko zaintza orduen batez bestekoa 16,66koa da 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean. Batez besteko horrek gora egiten du gizon gazteenen artean, astean 20 ordutik gora ematen baitituzte zeregin horretan. Adin horretako gizonen lagina ez da oso ugaria (Kop.=27), baina badirudi adin horietako aitonek egiten duten zaintza lana handia dela. Emakumeek, berriz, zaintza lan handiagoa egiten dute 65-79 urteko adin tartean.

**Bilobak zaintzen dituzten pertsonak, asteko batez besteko orduen arabera**

	Bilobak zaintzen astean ematen dituen orduak			
	Kop.	Batez bestekoa	Desbiderapen tipikoa	p
<b>+ 55 guztira</b>	284	14,46	14,780	
<b>+ 65 guztira</b>	197	13,82	13,810	
<b>Sexua</b>				
Gizonak	94	15,00	14,588	
Emakumeak	191	14,19	14,917	
<b>Adin tarteak</b>				
55 - 64 urte	87	15,89	16,789	
65 - 79 urte	174	14,61	14,007	
80 urte edo gehiago	23	7,90	10,725	0,006
<b>Sexua eta adin tarteak</b>				
55 - 64 urteko gizonak	27	20,47	19,022	
65 - 79 urteko gizonak	61	13,12	12,045	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	5	8,29	6,87	
55 - 64 urteko emakumeak	60	13,80	15,383	
65 - 79 urteko emakumeak	113	15,41	14,952	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	18	7,78	11,776	0,007

**Desgaitasuna duten edo gaixorik dauden senitartekoak, bizilagunak edo lagunak zaintzea**

Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 4,2k desgaitasuna duten edo gaixorik dauden 75 urtetik beherako senitartekoak, bizilagunak edo lagunak zaintzen ditu astean behin gutxienez. Zifra hori % 3,2koa da 65 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan, eta % 2,4koa 80 urtetik gorakoen artean. Mota horretako zainketak batez ere emakumeek eskaintzen dituzte, 55-64 urteko adin tarteak, nagusiki.

**Desgaitasuna duten edo gaixorik dauden 75 urtetik beherako senitartekoak, bizilagunak edo lagunak zaintzen dituzten pertsonak**

	Emandako laguntzen maiztasuna: 75 urtetik beherako en zaintza		
	Astean behin, gutxienez	Gutxiagotan edo inoiz ez	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 4,2	% 95,8	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 3,2	% 96,8	0,001
<b>Sexua</b>			
Gizonak	% 3,2	% 96,8	
Emakumeak	% 4,9	% 95,1	0,035
<b>Adin tartekak</b>			
55 - 64 urte	% 5,8	% 94,2	
65 - 79 urte	% 3,6	% 96,4	
80 urte edo gehiago	% 2,4	% 97,6	0,003
<b>Sexua eta adin tartekak</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 5,1	% 94,9	
65 - 79 urteko gizonak	% 2,7	% 97,3	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 0,6	% 99,4	
55 - 64 urteko emakumeak	% 6,5	% 93,5	
65 - 79 urteko emakumeak	% 4,3	% 95,7	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 3,2	% 96,8	0,004

Bestalde, horrelako laguntza astero ematen duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 12,6 arduratzen da desgaitasuna duten edo gaixorik dauden 75 urtetik gorako senitartekoak, bizilagunak edo lagunak zaintzeaz. Horien artean antzekoa da gizonen eta emakumeen kopurua, baina 80 urteko eta gehiagoko pertsonen adin tartean gizonak nabarmentzen dira, % 6,7 baitaude egoera horretan (eta emakumeen % 4,2). 55-64 urteko adin tartekoak dira nagusi adin handienekoak zaintzen, % 21,5 arduratzen baita horretaz. Gurasoak zaintzen dituzten pertsonak izaten dira egoera horretan daudenak. Zaintzaileak 80 urtetik gorakoak direnean, bikotekidea zaintzeaz arduratzen dira. Horregatik, gizonak gehiago dira emakumeak baino.

**Desgaitasuna duten edo gaixorik dauden 75 urtetik gorako senitartekoak, bizilagunak edo lagunak zaintzen dituzten pertsonak**

	Emandako laguntzen maiztasuna: 75 urtetik gorakoen zaintza		
	Astean behin, gutxienez	Gutxiagotan edo inoiz ez	p
<b>+ 55 guztira</b>	% 12,6	% 87,4	0,000
<b>+ 65 guztira</b>	% 7,0	% 93,0	0,000
<b>Sexua</b>			
Gizonak	% 13,1	% 86,9	
Emakumeak	% 12,2	% 87,8	
<b>Adin tarteak</b>			
55 - 64 urte	% 21,5	% 78,5	
65 - 79 urte	% 7,9	% 92,1	
80 urte edo gehiago	% 5,1	% 94,9	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>			
55 - 64 urteko gizonak	% 21,2	% 78,8	
65 - 79 urteko gizonak	% 7,6	% 92,4	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 6,7	% 93,3	
55 - 64 urteko emakumeak	% 21,9	% 78,1	
65 - 79 urteko emakumeak	% 8,2	% 91,8	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 4,2	% 95,8	0,000

Adineko senitartekoen zaintzan astean batez beste 20,53 ordu ematen dituzte 55 urteko eta gehiagoko pertsonak. Zainketa mota horrek ordu gehiago eskatzen ditu seme-alabak edo bilobak zaintzeak baino. Asteko batez besteko zaintza orduak gehiago dira adinez gazteenak diren belaunaldien artean. Hala ere, 80 urtetik gorako gizonak zaintza lanetan ematen dituzten orduen kopurua oso handia da: batez beste 40 ordu astean. Baina kontuan hartzekoa da oso pertsona gutxi dagoela egoera horretan (Kop.=6).

### Adineko senitartekoak zaintzen dituzten pertsonak, asteko batez besteko orduen arabera

	Adineko senitartekoak zaintzen astean ematen dituen orduak			
	Kop.	Batez beste-koa	Desbiderapen tipikoa	p
<b>+ 55 guztira</b>	320	20,53	25,780	
<b>+ 65 guztira</b>	31	12,66	19,801	
<b>Sexua</b>				
Gizonak	136	19,79	22,144	
Emakumeak	184	21,08	28,216	
<b>Adin tartekak</b>				
55 - 64 urte	209	22,30	27,965	
65 - 79 urte	88	18,00	18,120	
80 urte edo gehiago	24	14,26	29,035	
<b>Sexua eta adin tartekak</b>				
55 - 64 urteko gizonak	96	19,57	21,244	
65 - 79 urteko gizonak	33	16,23	15,330	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	6	41,4	47,2	
55 - 64 urteko emakumeak	113	24,63	32,533	
65 - 79 urteko emakumeak	55	19,08	19,679	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	17	4,03	4,697	0,008

### COVID-19aren eragina eskaintako zaintzan

Krisiak zaintzaren maiztasunean izan duen eraginari dagokionez, inkestaren arabera, zainketak eskaintzen dituzten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 19,65i eragin die. % 8,3rentzat zaintza lanek gora egin dute, eta % 11,3rentzat gutxitu egin dira.

Badirudi krisiaren eraginak ez duela loturarik generoarekin, baina bai adinarekin: 55-64 urteko belaunaldietako pertsonen % 12,2rentzat zainketa lanek gora egin dute, eta % 9,8rentzat behera; 65-79 urtekoen artean, berriz, % 6,8 kasutan gora egin dute eta % 15,6tan behera. Horrenbestez, belaunaldi gazteenen artean zainketen maiztasunak goraka egin du, eta 65-79 urtekoen artean, berriz, beheraka. Adin



handieneko belaunaldiak dira zainketen eskaintzaren maiztasunean aldaketa gutxien igarri dutenak.

**Zaintza eskaintzen duten pertsonak, COVID-19aren krisiaren ondorioz zaintzaren maiztasunak izan duen aldaketaren arabera**

	COVID-19ak eragindako maiztasunaren aldaketa: beste pertsona batzuen zainketa				
	Bai, maiztasunak gora egin du	Ez, ez da aldatu	Bai, maiztasunak behera egin du	ED/EDE	P
<b>+ 55 guztira</b>	% 8,3	% 79,7	% 11,3	% 0,7	
<b>+ 65 guztira</b>	% 5,5	% 81,3	% 12,4	% 0,9	
<b>Sexua</b>					
Gizonak	% 8,0	% 81,1	% 10,3	% 0,6	
Emakumeak	% 8,5	% 78,6	% 12,1	% 0,8	0,593
<b>Adin tarteak</b>					
55 - 64 urte	% 12,2	% 77,7	% 9,8	% 0,3	
65 - 79 urte	% 6,8	% 77,0	% 15,6	% 0,6	
80 urte edo gehiago	% 2,2	% 91,2	% 4,8	% 1,8	0,000
<b>Sexua eta adin tarteak</b>					
55 - 64 urteko gizonak	% 11,5	% 78,5	% 9,3	% 0,6	
65 - 79 urteko gizonak	% 6,1	% 81,0	% 12,6	% 0,3	
80 urteko eta gehiagoko gizonak	% 2,1	% 90,5	% 6,3	% 1,1	
55 - 64 urteko emakumeak	% 12,7	% 77,1	% 10,2		
65 - 79 urteko emakumeak	% 7,4	% 73,8	% 18,0	% 0,8	
80 urteko eta gehiagoko emakumeak	% 2,8	% 91,0	% 3,9	% 2,2	0,000



# Funtsezko Mezuak

Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko **laguntza beharrari** dagokionez:

- Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 13,1ek laguntza behar du eguneroko bizitzako jarduera bat edo gehiago egiteko. Laguntza behar duten pertsonen kopurua handitu egiten da adinak gora egin ahala. Profil horretan adin handiko emakumeak dira nagusi.
- Oinarrizko jardueren kasuan, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 5,1ek laguntza behar du horiek egiteko. Kasu horretan ere, ehunekoa handitu egite da adinak gora egin ahala.
- Jarduera instrumentaletarako laguntza behar dutenak % 12,5 dira; 80 urtetik gorakoen artean, berriz, 10 lagunetik lau.

**Laguntza jasotzeari** dagokionez:

- Laguntza jasotzen duten pertsonen ehunekoan zifrak antzekoak dira (55 urtetik gorakoek % 17,5ek jasotzen du laguntzaren bat). 80 urtetik gorako pertsonen artean ia % 40 dira laguntza jasotzen dutenak.
- Laguntza hartzaile diren pertsona gehienek etxeko lanak egiteko laguntza jasotzen dute, lautik batek izapideak eta gestioak egiteko, % 20,7k norbere zaintzarako, eta % 18,8ri konpainia egiten diote.
- Pertsonak batez ere laguntza informala jasotzen dute (% 65,5ek), hau da, senitartekoek, bizilagunek edo boluntarioek eskainitakoa. Familiartekoek emandako laguntza nabarmendu da. 10 pertsonatik batek laguntza informalaz gain formala ere jasotzen du, eta % 5,5ek laguntza formala bakarrik (gizarte zerbitzuek bideratutakoa edo modu pribatuan kontratatutakoa). Adinak gora egin ahala, laguntza formalak eta bien arteko uztarketak ere goraka egiten dute, eta informal hutsa den laguntzak behera egiten du.
- Familiaren laguntza jasotzen duten pertsonen kasuan, ia erdiari bikotekide edo ezkontideak laguntzen dio, % 34,2ri bizikide ez duen seme-alabaren batek, eta % 20,3ri etxe berean bizi den seme-alabaren batek.
- Inkesta egin duten pertsonen % 6,2k adierazi du 2020ko udan jasotako laguntzaren maiztasuna aldatu egin zela COVID-19aren krisiaren eraginez; hala, 2,9k esan zuen aurreko urtean baino maizago jaso zuela laguntza, eta % 3,3k gutxiagotan jaso zuela. Aldaketan berri eman zutenen artean adin handieneko emakumeak ziren nagusi.

**Eskaintako zaintzari dagokionez:**

- 55 urteko eta gehiagoko pertsonen ia % 30ek zainketak eskaintzen dizkie beste pertsona batzuei astean behin gutxienez: seme-alabei, bilobei edo senitartekoei, desgaitasuna duten edo gaixorik dauden bizilagunei edo lagunei. Adin tarte gazteenean (55-64 urtekoen artean), pertsonen % 40,4k astero egiten ditu zainketa lanak.
- 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 7,1ek gutxienez astean behin zaintzen ditu seme-alabak. Zifra hori bikoiztu egiten da 55-64 urtekoen adin tartean. Zaintzen intentsitatean ere islatzen da hori.
- Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 13,2 astero arduratzen da bilobak zaintzeaz, batez beste 16,66 orduz astean. Emakumeak eta 65 eta 79 urte arteko pertsonen multzoa dira profil nagusia.
- 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 12,6 arduratzen da desgaitasuna duten edo gaixorik dauden 75 urtetik gorako senitartekoak, bizilagunak edo lagunak zaintzeaz, batez beste 20,53 orduz astean. Adin handiagokoak zaintzen dituzten pertsonen ehunekorik handiena 55-64 urteko adin tartekoena da. Mota horretako laguntzak ordu gehiago eskatzen ditu.
- COVID-19aren krisiak eragin nabaria izan du zainketen maiztasunean zeregin horiez arduratzen diren 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 20rentzat: % 8,3rentzat gora egin du, eta % 11,3rentzat behera. Batez ere belaualdi gazteenek (55-64 urtekoek) igarri dute gorakada; 65-79 urtekoek, berriz, beherakada nabaritu dute eskaini dituzten zainketen maiztasunean.



